

Abeletxe

etxebizitza

Aldacrak: Abeletxebarria
Ahozkoa: Abéltxena



Berriz Iruditan / J.A. Ramos

“... la casa rústica titulada Abelechea... situada en la Cofradía o barriada de San Lorenzo o jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende con su tejavana cincuenta y cinco estados, equivalentes a doscientos nueve metros cuadrados superficiales de planta solar... y la que se compone de pisos bajo y alto y desbán, con sus correspondientes divisiones y habitaciones...”
DJE, 1/229. or. (1866)

Jatorrizko baserria bota zenean, XX. mende amaieran, horren atzealdean egin zen egungo baserria. Lehengo baserriaren izena mantendu du, nahiz eta batzuetan *Abeletxebarria* moduan izendatzen dute herritarrek. Dokumentazioan, lehengo baserriari dagokionez, topatu dugun lehen arrastoa 1745ekoa da, Bizkaiko su-errol-detan. Gerora, dokumentazio guztian izena mantendu da. Auzotarren artean, *Abéltxena* da formarik erabiliena. XX. mendearen azken hamarkadan baserriaren ingurua zeharo aldatu da, eta bertan eraikitako etxebizitza multzoak *Abeletxe auzunea* izena hartu du.

Txaletari eta auzuneari izena eman dion baserri zaharra, bota zutena, XIX. mendeko eraikina izan zitekeen. Argazki zahar eta pintura batzuen arabera, antolamendu sinpleko fatxada zeukan: aldamenen zituen atea, eskailerak igota, eta lehenengo solairuko balkoi luzea. Itxuraz, etxea txikia zen eta momenturen batean handitu egin zuten, ganbara aldean sumatzen zirelako horren arrastoak. Harlangatza erabili zuten eraikitzeke eta harlandua, atean baino ez, beste bao guztiak egurrez zabaldu zituztelako. Gainera, ganbarako pisuan egurrezko egitura zuen, tartekako txori-tokiekin. Teilatua bi isuritakoa zeukan eta hegalari eusteko, egurrezko besoez baliatu ziren.

toponimia

*Abeletxe*a, izenak berak dioen bezala, *abereak* gordetzeko etxea da, askotan baserritik urrun. Ola edo kortabasoekin gertatu zen bezala hasieran *abereak* gordetzeko eraiki zena bizitzeko etxe bihurtu zen. Hitz honen etimoa erabat garbena da *abere+etxe*. Baina deigarriena dugu *abere* hitzaren etimoa. *Abereak* etxeko animaliak dira, bereziki behiak eta behorrak eta hitza latineko *habere*-tik dator gaztelaniazko “*haberes*” (*jabetzak*) bezala.



Elizondo bidebarrietatik / Berriz Iruditan